

Bakarkadian aurkituten zan
euskaldunaren gogoa,
burdin giroak menperaturik
erriaren arnasea;
baiña gizon bat jaio zan Bilbon
euskeraren esnalea,
gaztedi on bat sortu ebana
izkuntzaren maitalea.

Aren argiak eta odolak
ekarri eben bizia,
Sabin izan zan maisu aundia
eta berbiztuerea;
ikasle onak izan zituan,
egiz, ondo, merezia,
euren artean Agirre jauna
izlari zoragarria.

PAULIN

Deia Egunkariak 1992'ko Bagillaren 17'an

Berrojalbiz'tar Julita Andreak berba egin eban atzo Euskal Astean

BILBAO. Bigarren eguneko berbaldia Berrojalbiz'tar Julita'k egin eban, atzo.

Jakiña da, Euskerazaleak Alkartea 'ren elburu bat euskerea erabiltea lortzea izan zala.

Bilbao'n euskaldunak orduan, orain ogei ta bost bat urte, gaur baiño gitxiago ziran eta euskaldunak ziranak be ez ziran euskeraz berba egiteko ausartzen.

Bearrezkoa zan ba, Alkarte onen ekintza, euskerea okulluetatik atarateko eta plazan eta kalean gure izkuntza erabiltzen ausartzeko.

Baiña orrez gaiñera Alkarte onek ainbeste urtetan eratu dau euskerea ikasteko urtea. Bear ba'da auxe izango zan lenengo euskaltegia.

Eta zer lortu da? Ez Bilbao'tar guztiak euskeraz egitea, on amets utsa da, baiña bai euskereari zor jakon lekua eskintzea. Alkarte au izan zan eskoletan euskerea sartu al izateko eskaria Madrid'era egin ebana. Eskatu eta lortu be bai. Orduantxe asi ziran elebitasunezko ikastetxeak eta ordutik ona asko aurreratu da arlo onetan.

Bahia noraiño eldu gara? Zenbatek egiten dau gaur berba euskeraz Bilbao'n? Ez da erreza jakingarri zeatzak emotea, baiña orretarako alegiña egin eban Berrojalbiz Andreak eta pozik entzun geuntson.

Gaur Olazar'tar Martin'ek egingo dau berbaldia eta bere gaia Euskerazaleak Alkartea'k argitaratu dauzan liburuak izango da, eskolapioetan, arratsaldeko 8'retan.



Berrojalbiz Andrea